| 2023 | 91600 | G/900003/7609/231000 | 27/02/2023 | 16.238,28 | P3122700B | P3122700B | AYUNTAMIENTO DE TAFALLA | E-21/000361-01 |
| | | | | 548.862,93 | | | | |

# 10-23/PES-00065. Galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmeneko 11 proiektuak 2021ean eta 2022an betetzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmeneko 11 proiektuak 2021ean eta 2022an betetzeari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 24ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du SEMeko Europako funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmeneko 11 proiektuak 2021ean eta 2022an betetzeari buruz (10-23/PES-00065). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Taulan xehakatuta ageri da Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioaren arteko hitzarmeneko 11 proiektuetan 2021ean eta 2022an betetako gastuari buruzko informazioa.

| Proyecto | Obligaciones 2021 | Obligaciones 2022 | Total Obligaciones |
|---|---|---|---|
| P-21/000356 MRR P1 REFORMAS CENTROS SOCIOSANITARIOS | 781.954,75 | 3.631.562,46 | 4.413.517,21 |
| P-21/000357 MRR P2 MODERNIZACIÓN CENTROS RESIDENCIAL | - | 25.953,62 | 25.953,62 |
| P-21/000359 MRR P3 TELEASISTENCIA Y SIST.DIGITALES | 31.402,54 | 1.572.599,22 | 1.604.001,76 |
| P-21/000360 MRR P4 HISTORIA SOCIAL UNICA | - | 280.365,33 | 280.365,33 |
| P-21/000361 MRR P5 REFORZAMIENTO S. SOCIALES BASE | 34.900,00 | 22.524,99 | 57.424,99 |
| P-21/000362 MRR P6 PROYECTOS INNOVACION RURAL | - | - | - |
| P-21/000363 MRR P7 INST. INV. DEP. Y ENVEJECIMIENTO | - | - | - |
| P-21/000364 MRR P8 TRABAJO EN RED ENFOQUE DIALOGICO | - | - | - |
| P-21/000365 MRR P9 CENTROS RESIDENCIALES MENORES | 65.788,11 | 820.289,53 | 886.077,64 |
| P-21/000366 MRR P10 ACOGIMIENTO FAMILIAR | 83.150,00 | 68.697,49 | 151.847,49 |
| P-21/000367 MRR P11 ACCIONES MATERIA ACCESIBILIDAD | - | 61.219,01 | 61.219,01 |
| **Total general** | **997.195,40** | **6.483.211,65** | **7.480.407,05** |

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

# 10-23/PES-00066. Galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektua betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean jasotzen diren irisgarritasun-arloko proiektuen betetze-mailari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektua betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean jasotzen diren irisgarritasun-arloko proiektuen betetze-mailari buruzkoa. Galdera 2023ko otsailaren 24ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du SEMeko Europako funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean jasotzen diren irisgarritasun-arloko proiektuen betetze-mailari buruz (10-23/PES-00066). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioaren arteko hitzarmeneko 11. proiektuko ekintzak eta horien betetze-maila honako hauek izan dira:

1. jarduketa: sentsibilizazio kanpaina, herritar guztiei edo/eta azpiegituren eta zerbitzuen diseinuan parte hartzen duten kolektiboei zuzendua.

Betetzeko bidean: kanpaina hori 2023ko lehen hiruhilekoan egiten ari da.

2. jarduketa: Aztertzea zer beharrizan dituzten Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko egoitza-zentroek irisgarritasun kognitiboaren, sentsorialaren eta, kasua bada, fisikoaren arloetan.

Kontratuaren lizitazioa prestatzen ari da.

3. jarduketa: entzumen irisgarritasuna, begizta magnetikoak instalatzea, mugikortasun urriko pertsonek eta ikusmen urriko pertsonek behar dituzten egokitzapenak egitea Eskubide Sozialetako Departamentuaren eraikinetan.

Beteta.

4. jarduketa: irisgarritasun fisikoa hobetzea titulartasun publikoko hiru egoitza-zentrotan (zaharren zentro batean eta desgaitasuna duten pertsonen zentro batean).

Betetzeko bidean.

5. jarduketa: irakurketa errazerako arauzko egokitzapena (12/2022ko Foru Legea, maiatzaren 11koa, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa).

Beteta.

6. jarduketa: sabaiko garabiak jartzea desgaitasuna duten pertsonen zentroetan: hiru garabi, desgaitasuna duten pertsonentzako arreta integraleko Valle del Roncal zentroan.

Beteta.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 10-23/PES-00067. Galdera, Corellako Udalak Kontratuei buruzko Legea urratzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Corellako Udalak Kontratuei buruzko Legea urratzeari buruzkoa. Galdera 2023ko martxoaren 1eko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak galdera egin du (10-22/PES-00067), honako hau jakin nahi baitu:

Toki Administrazioko Departamentua jakitun al da Corellako Udalak behin eta berriz urratu duela Kontratuei buruzko Legea, idazkaritzak eta kontuhartzailetzak egindako txostenek adierazi dutenarekin bat? Horri dagokionez, ekimenen bat hartzeko asmoa al du Departamentuak?

Galdera hori dela-eta, hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak informatzeko duena: Nafarroako toki entitateek ez dizkiote beren idazkari eta kontu-hartzaileen txostenak bidali behar Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, beren egintzen eta erabakien kopia edo, hala behar denean, laburpena baizik, urriaren 18ko 279/1990 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 22an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

---

## 10-23/PES-00069. Galdera, Ijitoen Garapenerako Estrategiaren inpaktuaren gaineko txostenei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ijitoen Garapenerako Estrategiaren inpaktuaren gaineko txostenei buruzkoa. Galdera 2023ko martxoaren 1eko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du Ijitoen Garapenerako Estrategiaren inpaktuaren gaineko txostenei buruz (10-23/PES-00069). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Ijitoen garapenerako Estrategian jasota zetorren horren inpaktua ezagutzeko inkesta kuantitatibo eta kualitatibo bat eginen zela 2020an. Egin al da inkesta hori? Noiz?

Ijitoen Garapenerako Estrategiaren ezarpen maila aztertzeko jarraipen prozesuaren ezaugarria izan da teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak uztartzea: jarduketen gauzatzeari buruzko datuak biltzea, Estatuko testuinguru-adierazle batzuk sistematizatzea –Nafarroako testuingurura estrapolatzeko modukoak izan daitezkeenak–, eta sare publikoko eta gizarte ekimeneko espezialistek parte hartzea. Ildo horretan, esan daiteke parte-hartze tasa nahiko handia izan dela, 45 bat profesionalek parte hartu baitute.

Egin al dira estrategia horrek jasotzen zituen urteroko betearazpen-txostenak?

Estrategiari buruzko tarteko ebaluazioa egin da.

Egin al dira estrategia horren jarraipen eta ebaluazio atalak jasotako bitarteko ebaluazio luzeagoa (2020) eta amaierako betearazpena (2022)?

Bitarteko ebaluazioa egin da, eta aurreikusita dago amaierako ebaluazioa egitea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

---

## 10-23/PES-00070. Galdera, aparteko laguntzen eta emergentziazko laguntzen ebaluazioari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, aparteko laguntzen eta emergentziazko laguntzen ebaluazioari buruzkoa. Galdera 2023ko martxoaren 1eko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du aparteko laguntzen eta emergentziazko laguntzen ebaluazioari buruz (10-23/PES-00070). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Ez da ebaluaziorik egin eta aurreikusi ere ez da aurreikusten berariazko ebaluaziorik egitea. Inklusio politika guztiak Inklusio Planaren barruan ebaluatzen dira.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

---

## 10-23/PES-00071. Galdera, 2021eko kontratu-erreserbak urte horretan esleitutakoan egiten duen portzentajeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2021eko kontratu-erreserbak urte horretan esleitutakoan egiten duen portzentajeari buruzkoa. Galdera 2023ko martxoaren 1eko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du 2021eko kontratu-erreserbak urte horretan esleitutakoan egiten duen portzentajeari buruz (10-23/PES-00071). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Hirugarren aldia da talde parlamentario horrek informazio bera eskatzen duena, duela hilabete batzuk emana.

Baliabide publikoak egoki erabiltze aldera, komenigarria litzateke jada erantzun zaien galderak ez errepikatzea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

---

## 10-23/PES-00072. Galdera, kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta ezagutarazteko webgune berria, zeina 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txostenean jasotzen baita, abian jartzeko aurrekontuaren betetze-mailari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta ezagutarazteko webgune berria, zeina 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txostenean jasotzen baita, abian jartzeko aurrekontuaren betetze-mailari buruzkoa. Galdera 2023ko martxoaren 1eko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak galdera egin du kontratuak erreserbatzeko betebeharra bideratzeko eta ezagutarazteko webgune berria, zeina 2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren jarraipen-txostenean jasotzen baita, abian jartzeko aurrekontuaren betetze-mailari buruz (10-23/PES-00072). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Eskatutakoaren izaera dela-eta, parlamentariak informazio eskaera aurkeztu behar du.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 10-23/PES-00073. Galdera, 2019az geroztik abiarazi diren bestelako etxebizitza babestuen araubideko sustapen berriko etxebizitzei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2019az geroztik abiarazi diren bestelako etxebizitza babestuen araubideko sustapen berriko etxebizitzei buruzkoa. Galdera 2023ko martxoaren 1eko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak idatzizko galdera egin du Nafarroako Etxebizitza Planari buruz eta 2019az geroztik abiarazi diren bestelako etxebizitza babestuen araubideko sustapen berriko etxebizitzei buruz (10-23/PES-00073). Hori dela-eta, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dio:

Ez da bestelako etxebizitzarik kalifikatu etxebizitza babestu gisa, bestelako etxebizitzatzat hartzen baditugu erabilera-lagapeneko araubideko kooperatibak, cohousinga, etxabeak eraldatzea eta etxebizitzak zatitzea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 22an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 10-23/PES-00074. Galdera, Nafarroako Gobernuaren aginduz IVAC-KREIk egin duen “Nafarroan 1979tik gaur arte izandako torturari eta beste tratu txar batzuei buruzko ikerketa” txostenari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren aginduz IVAC-KREIk egin duen “Nafarroan 1979tik gaur arte izandako torturari eta beste tratu txar batzuei buruzko ikerketa” txostenari buruzkoa. Galdera 2023ko martxoaren 1eko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatzizko galdera egin du (10-23/PES-00074). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen duen informazioa:

PEI-00023 informazio eskaeraren erantzunean adierazi zen bezala, Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologiaren Euskal Institutuarenak dira jabetza, ikerketa eta ikerketa-taldearen konfigurazioa, batez ere haren zuzendaritza, aholku taldea, ikertzaile taldea, nazioarteko behatzaileak, peritu-protokoloa, koordinazio orokorra, peritu-lanak, peritazioen gainbegiratzea, ebaluazio medikoa eta datu-analisia, eta erakunde hori da taldearen publizitatearen eta jarduketa teknikoaren erantzulea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 22an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

# 10-23/PES-00075. Galdera, Vasco-Navarro trenbide zaharra eta Muesko presa erromatarra kultur intereseko ondasun deklaratzeko izapideari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Vasco-Navarro trenbide zaharra eta Muesko presa erromatarra kultur intereseko ondasun deklaratzeko izapideari buruzkoa. Galdera 2023ko martxoaren 14ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko apirilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatzizko galdera egin du (10-23/PES-00075), zeinean hainbat galdera egiten baititu Vasco-Navarro trenbide zaharrari eta Muesko presari buruz. Hori dela-eta, hona Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Hasi al da Vasco-Navarro trenbide zaharra Kultur Intereseko Ondasun deklaratzeko izapidea?

Nafarroako Gobernua beste kultur intereseko ondasun deklarazio batzuk bideratzen ari da, Vasco-Navarro trenbidearena baino lehen hasitakoak edo/eta konprometitutakoak, eta oraindik ez du aukerarik izan haren deklarazioaren azterketa hasteko.

Hasi al da Muesko presa erromatarra Kultur Intereseko Ondasun deklaratzeko izapidea?

Oraindik ez dago prest hura aztertu eta baloratzeko behar den dokumentazioa, Kultura Zuzendaritza Nagusiak sustatutako urteroko kanpaina arkeologikoak egin dituen enpresak, Gabinete TRAMA SLk, ez duelako aurkeztu indusketen amaierako oroitidazkia. Oroitidazki hori ezinbestekoa da aztarnategia kultur intereseko ondasun deklaratzeko espedientea hasteko behar den informazioa bildu ahal izateko.

Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, zeinetan Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen “Kultur Intereseko Ondasun deklaratzeko espedientea abiatu baino lehen, lan-mahai bat era zezan ukitutako lursailen jabeekin, Muesko Udalarekin eta Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kirol Departamentuarekin, adoste aldera nola zedarritu aztarnategia babestea bermatuko duen perimetroa, bai eta sarbideak ere, hala aztarnategira nola ukitutako gainerako lursailetara”. Eratu al da lan-mahai hori?

Deialdia eginen da aurreko erantzunean aipatutako dokumentazioa eskuratzen denean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko apirilaren 4an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 10-23/PES-00076. Galdera, Torraspapel enpresari emandako laguntza publikoei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Torraspapel enpresari emandako laguntza publikoei buruzkoa. Galdera 2023ko martxoaren 14ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatzizko galdera egin du (10-23 PES-00076) –76 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen, 2023ko martxoaren 9an–, jakin nahi baitu zer laguntza edo dirulaguntza jaso dituen azken hamar urteetan Leitzan kokatuta dagoen Torraspapel (LECTA taldea) enpresak –Sarriopapel zenak– egiturazko edo teknologiako inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzagatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+b-a laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik, eta zer zerga-onura (I+G+b jarduerengatiko kenkariak, inbertitzeagatiko kenkaria edo bestelako kenkariak) aplikatu dituen azken hamar urteotan. Hauxe da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, eskaeraren edukia hartu behar da kontuan: Torraspapel (LECTA taldea) enpresak aplikatutako dirulaguntzak eta onura fiskalak. Horren arabera, eskaera egin duen parlamentariak hain zuzen ere dirulaguntzen eta onura fiskalen kontzeptuak bereizi nahi bide ditu, kalifikazio eta irismen desberdinak dituztelako.

Hala, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 2.1 artikuluan ezartzen duenez, pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapena da dirulaguntza, baldintza hauek betetzen dituena:

a) Dirua ez onuradunen, ez hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.

b) Dirua emateko baldintza izatea xede jakin bat bete dadila, edo proiekturen bat gauzatu, jardueraren bat egin nahiz jokabide berezia har dadila (xede horiek jada burutuak izan daitezke nahiz oraindik burutu gabeak), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunari betebehar material eta formal batzuk ezartzea.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea izan behar du.

Gainera, lege-arau berak 2.3.b) artikuluan zehazten duenez, zerga-onurak ez dira dirulaguntzatzat hartuko.

Hori dela-eta, ohartarazten da erantzuna Torraspapel entitateak (LECTA taldea) aplikatutako onura fiskalak direla-eta eskatutako informazioari buruzkoa baino ez dela, eta ez jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzkoa. Zentzu horretan, onura fiskalen kontzeptua adiera zabalean interpretatu behar da, hau da, aipatu zergadunak izan zitzakeen kenkari edo salbuespen fiskalak barne. Erantzunak, hala ere, ez dio eragiten Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuetatik erakunde horrek jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzko informazio-eskaerari, eta halakorik ez du aipatzen gainera.

Antzeko beste informazio-eskaera batzuetan erantzun dugun bezala, esan behar da Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Administrazioak datuak lagatzeari buruzko gaia Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren (hemendik aurrera, TFLO) 105.1 artikuluan araututa dagoela; honako eduki honekin hasten da artikulu hori: “Bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu behar dituen tributuak edo baliabideak benetan aplikatzeko erabiliko dira bakarrik. Ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu”.

Hori dela-eta, lege-araudiak argi eta garbi xedatzen du Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean jaso dituen datuak isilpekoak direla eta zergen ikuspegitik garrantzitsuak diren helburuetarako soilik bideratu edo erabil daitezkeela, hau da, zergak aplikatzeko bakarrik erabili ahal izanen direla. Izaera erreserbatu horren arrazoia da zergadunek zerga-araudia aplikatzeko eginkizuna eraginkortasunez bete dezan zerga-adminis-

trazioari bidaltzen eta ematen dizkioten datuen pribatutasuna zaindu behar dela. Hala ere, erraza da ulertzea erreserba hori ezin dela erabatekoa izan, batzuetan tentsioa egon baitaiteke datuen pribatutasunaren eta baliabideen kudeaketa publikoan nagusi izan behar duen gardentasunaren artean. Horren arabera, bien arteko oreka bilatu behar da (pribatutasuna eta gardentasuna), eskubide indibidualak eta kolektiboak edo gizartea kaltetu gabe.

Oreka hori lortzera bideratuta dago aipatutako TFLOren 105.1 artikulua, eta, arauaren hasierako argitasuna eta sendotasuna gorabehera, lagapen edo jakinarazpen hori baimentzen duten zenbait salbuespen edo lege-gaikuntza ahalbidetzen ditu.

Aipatutako 105.1 artikuluko salbuespen edo gaikuntzen artean ez dago eskatutako informazio-eskaera egokitzen den inolako kasurik, eta, beraz, ezin da Torraspapel (LECTA taldea) enpresak azken hamar urteetan aplikatutako zerga-onurei buruzko informaziorik eman.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 17an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

### Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak galdera idatzia aurkeztu du (10-23/PES-00076), honako hau jakin nahi baitu:

– Zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu azken hamar urteetan Leitzan kokatuta dagoen Torraspapel (LECTA Taldea) enpresak —Sarriopapel zenak— egiturazko edo teknologiako inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzagatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+b-a laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik?

– Zer zerga-onura (I+G+b jarduerengatiko kenkariak, inbertitzeagatiko kenkaria edo bestelako kenkariak) eta zer zenbateko aplikatu ditu Sarriopapel/Torraspapel enpresak azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren aitorpenetan?

Horri erantzuteko, honako hau jakinarazten du Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak:

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 2.1 artikuluan ezartzen duenez, pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapena da dirulaguntza, baldintza hauek betetzen dituena:

a) Dirua ez onuradunen, ez hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.

b) Dirua emateko baldintza izatea xede jakin bat bete dadila, edo proiekturen bat gauzatu, jardueraren bat egin nahiz jokabide berezia har dadila (xede horiek jada burutuak izan daitezke nahiz oraindik burutu gabeak), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunari betebehar material eta formal batzuk ezartzea.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea izan behar du.

Gainera, lege-arau berak 2.3.b) artikuluan zehazten duenez, zerga-onurak ez dira dirulaguntzatzat hartuko.

Goian esandakoa kontuan hartuta, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak azken hamar urteetan enpresa horri hainbat kontzepturengatik emandako dirulaguntzak bakarrik aipatzen dira erantzunean. Taula honetan adierazten dira:

| Noiz eman den | Noiz ordaindu den | Zenbatekoa | Kontzeptua |
|---|---|---|---|
| 2013 | 2015/01/29 | 11.344,36 | I+G proiektu mankomunatuetarako dirulaguntza |
| 2015 | 2015/12/30 | 14.069,00 | Enpresentzako dirulaguntzak, I+G+b proiektuak, patenteak eta bideragarritasun-azterlanak direla-eta. EGEF PE |
| 2016 | 2017/04/06 | 10.811,27 | Enpresentzako dirulaguntzak, I+G+b proiektuak, patenteak eta bideragarritasun-azterlanak direla-eta. EGEF PE |
| 2018 | 2018/12/21 | 5.617,10 | Enpresentzako dirulaguntzak, I+G+b proiektuak, patenteak eta bideragarritasun-azterlanak direla-eta. EGEF PE |
| 2018 | 2018/12/21 | 154.656,40 | Inbertsiorako laguntzak, enpresa handientzakoak |
| 2019 | 2019/07/17 | 11.228,97 | I+G proiektuetarako dirulaguntzak. Nafarroako 2014-2020 EGEF PE |
| 2020 | 2020/10/21 | 5.611,88 | I+G proiektuetarako dirulaguntzak. Nafarroako 2014-2020 EGEF PE |
| 2022 | 2023/01/04 | 500.000,00 | Energiaren gainkostuak ukituriko enpresentzako laguntzak |

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluak xedatua betez.

Iruñean, 2023ko martxoaren 5ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga